

KUTXABANK SAREN «ZORIONAK ZURI EKINTZA»

SUSTAPENAREN OINARRIAK

LEHENENGOA.- LURRALDE EREMUA ETA INDARRALDIA

KUTXABANK, SA (aurrerantzean, KUTXABANK) merkataritza-erakundeak (IFK: A95653077), egoitza Bilbon duenak (Kale Nagusia 30, 48009 Bilbo, Bizkaia), urteak betetzen dituzten bezero gazteak sustapen bidez fidelizatzeko, sustapen-kanpaina bat egingo du, eta Kutxabanken bezero diren pertsona fisiko guztiek parte hartu ahal izango dute, baldin eta oinarri hauetan ezarritako baldintzak betetzen badituzte.

CHEQUE MOTIVA, SL (aurrerantzean, CHEQUE MOTIVA) konpainia (IFK: B-84391929), egoitza Madrilen duena (Alcalá kalea, 106, Lehenengoa, 28009 Madril), arduratuko da sustapen hau kudeatzeaz.

BIGARRENA.- SUSTAPENA

Sustapen hau Espainian bizi diren eta pertsona fisikoak diren 19 eta 30 urte bitarteko bezeroentzat prestatu da, betiere Kutxabank txartel finantzarioen titularrak badira, haien harremanetarako datuak Kutxabanken gordeta badaude, eta online Bankuan izena eman badute. Espainian izan behar dute bizilekua. Bezeroek egunean izan beharko dituzte ordainketak eta Kutxabankekin daukaten beste edozein eragiketa, eta, oparia ematen den egunean (urtebetetze-egunean), ez dute zorrik izan behar erakundearekin mugaeguneratutako posizio zordunengatik eta likidoengatik.

KUTXABANKek sustapenean parte hartzen duten bezeroei kode bat oparituko die, eta kode horrekin esperientzia bat eskuratu ahal izango dute www.cumpleañosfelizkutxabank.es edo www.zorionakzurikutxabank.es webgunean.

HIRUGARRENA.- KANPAINAREN FUNTZIONAMENDUA

KUTXABANKek posta bidezko eskutitzak edo sms mezuak bidaliko dizkie urteak betetzen dituzten bezeroei (badin eta publizitatea jasotzearen aurka agertu ez badira). - Zorionak eman eta bulego batera joateko eskatuko zaie, oparia jaso dezaten, edo saria eskatzeko telefono-zenbaki bat emango zaie. - Bankuaren bulegoan datu pertsonalak eguneratuko zaizkie, besteak beste, helbide elektronikoa.

LAUGARRENA.- PARTE-HARTZEAREN FUNTZIONAMENDUA

KUTXABANKek bidalitako eskutitza edo sms mezua jaso duten bezeroek, bulegoarekin harremanetan jarri edo saria eskatzeko telefonora deitu ondoren, sustapen-kode bat jasoko dute posta elektronikoz, eta esperientzia batengatik aldatu ahalko dute.

Sustapen-kodea jaso ondoren, erabiltzaile bakoitzak 60 eguneko epea izango du trukea egiteko www.cumpleañosfelizkutxabank.es edo www.zorionakzurikutxabank.es webgunean.

Erabiltzailea atarira sartuko da eta sustapenaren barruan dauden esperientzia* guztiak ikusi ahal izango ditu.

*Sustapenak dirauen bitartean, www.cumpleañosfelizkutxabank.es edo www.zorionakzurikutxabank.es webgunean dauden esperientzietan aldaketak eman daitezke.

BOSGARRENA.- OPARIA

Oparia sustapen-kode bat izango da, eta kode horrekin esperientzia bat eskuratu ahal izango da www.cumpleañosfelizkutzabank.es edo www.zorionakzurikutzabank.es webgunean. Sustapen-kodeak 60 eguneko epean trukatu behar dira. Erreserbak egiteko unean balio-epe hori kontuan hartu behar da, balioa agortu aurretik erabiltzeko.

Zinemaren kasuan, sustapen-kodearen truke, sarrera bat eskuratu ahal izango da, astelehenetik ostiralera CHEQUE MOTIVA SLren Premium zinemen zirkuituko zinemetara joateko. Webgunean ikusgai dago aretoen zerrenda: www.cumpleañosfelizkutzabank.es edo www.zorionakzurikutzabank.es Zinemara sartzeko, sarrera leihatilara eraman beharko da, jasotzen den unetik beste 60 eguneko epean. Ezingo da erabili 3D, Isens, Imax, LED Onyx, VIP, MacroXE, Junior/Luxury edo 2D formatuko edo formatu digitaleko ohiko zinema-sarrerak baino garestiagoak diren emanaldietan, ez bada saridunak aukeratutako zinemako leihatilak sarrera bereziari dagokion gaitzuztua bertan ordaintzeko aukera ematen duela. Ezin da erreserbarik egin kodea aurkezten den dataren ondorengo egunetarako. Kodearen balio osoa zinema bakar batean erabili behar da, eta truke bakarra egin daiteke leihatilan aurkezten den egunean, areto, film eta saio bakarrerako.

SEIGARRENA.- SUSTAPENAREN BERRI EMATEA

Ondorio guztietarako, baita zerga-arlokoetarako ere, jakinarazpena posta arruntez edo sms bidez bidaliko zaie sustapenak dirauen bitartean urteak betetzen dituzten aipatu bezeroei.

ZAZPIGARRENA.- MUGAPENAK

Bezero bakoitzak behin bakarrik parte har dezake sustapenean.

Sustapen honen legezko funtzionamendu normala urratu, aldatu edo oztopatzen duten parte-hartzaileak baztertzeko eskubidea du CHEQUE MOTIVAK.

ZORTZIGARRENA.- SUSTAPEN-ALDIA

Sustapena 2019ko azaroaren 26tik 2022ko abenduaren 31ra egongo da indarrean.

Ezinbesteko kasuetan, Kutzabankek bertan behera utzi ahal izango du kanpaina, eta webgunean emango du horren berri, bai eta, hala dagokionean, partaideei ere.

BEDERATZIGARRENA.- SARIA ALDATZEA

Sustapen honetako oparia ezin da inola ere bezeroaren eskariz aldatu, moldatu edo konpentsatu, ez eta bere balioa dirutan eskuratu ere.

KUTXABANKEK eskubide osoa du saria balio bereko edo handiagoko beste batengatik aldatzeko, bai eta sustapenaren baldintzak aldatzeko ere.

HAMARGARRENA.- ERREKLAMAZIOAK ETA KONTSULTAK.

Sustapen honekin lotutako edozein kontsulta edo erreklamazio egiteko epea sustapen-kodea eman eta 11 hilabetera bukatuko da, eta bide hauek erabili ahal izango dira:

-Posta elektronikoa: info@egoexperiencias.com

--902 551 885 sustapenaren bezeroei arreta eskaintzeko telefonoaren bidez, astelehenetik ostegunera, 9:00etatik 14:00etara eta 16:00etatik 19:00etara; eta ostiraletan, 9:00etatik 14:00etara (jaiegun nazionaletan eta Madrilera jaiegunetan izan ezik).

HAMAIKAGARRENA.- SUSTAPENAREN OINARRIAK ONARTZEA ETA ALDATZEA

Parte-hartzaileek oinarriak eta KUTXABANKEK oinarriekin zerikusia duen edozein gai ebazteko erabiliko duen irizpidea onartzen dituzte.

KUTXABANKEK eskubide osoa dauka sustapen-oinarri hauetan edozer aldatu, kendu edo/eta gehitzeko, aurretik aldaketa horiek protokolo batean jaso, erakunde eskudunei jakinarazi eta haien baimena lortuta.

HAMABIGARRENA.- ERANTZUKIZUNA

KUTXABANKEK ez du erantzukizunik izango, hirugarrenen erruz, galerak, hondatzeak, lapurreak, atzerapenak edo bestelakoak gertatzen direnean eta horrek sustapenaren garapenean edo parte-hartzailearen baten erregistroan eragina daukanean.

Sustapen honen hartzaile diren bezeroek ezingo dute oparia eskatu, beren urtebetetze-egunetik 60 egun igaro badira.

HAMAHIRUGARRENA.- IRUZURRA PARTE-HARTZEAN

KUTXABANKEK edo sustapen honekin lotura profesionala duen beste edozein erakundek edozein irregulartasun detektatzen badu edo susmoa badu parte-hartzailearen bat sustapenaren garapen normala eragozten ari dela, edozein prozedura tekniko edo informatikoren bidez, modu ilegalean erregistratu eta bere parte-hartzea faltsutzeko, parte-hartzaile horren erregistroa ezabatu ahal izango du, alde bakarreko erabaki batekin.